

Urnietak hartu du ospakizunen lekukoa

Andoainen auzoetako jaiak ospatu dira, udan. Urnietan, Sanmielak iritsi bitartean, hitzordurik ez da faltako. Asteburu honetan, mus-txapelketa / 4-9-16



Sergio Labrador eta bere familia Txinan bizi dira; oporraldia Urnietan igaro dute / 2-3



Ander Gallo Andoaingo jockey-ak lehen garaipena eskuratu du, debuta egin berritan / 12

Axeriak, udako protagonistak

Goiburuko jaietan 'desapiyuan' parte hartu eta egun gutxira saioa eskaini zuten Donostiako jaietan / 5



OUTLET KALEAN
Irailak 15-16
Irailak 15: Gora Kaletxiki txaranga, 18:00-20:00

Bezeroaren astea

Salkineko komertzioetako 6 zigilu ezberdinekin bidaia baten zozketan parte hartuko duzu

Irailaren 11tik 17ra

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
11	12	13	14	15	16	17

Bidaia-zozketaren kanpainaren oinarriak

- Parte hartzen duten saltokiek bezeroaren txartela zigilatuko dute egindako erosketa bakoitzeko.
- Txartela, 6 establezimenduetako zigiluekin bete beharko da.
- Datu pertsonalekin osatu ondoren kutxetan utzi beharko da urriaren 13a baino lehen.
- Saria bi lagunentzako 2.500 euroko bidaia da eta apirilaren 30a baino lehen trukatu beharko da.
- Saria ezin izango da inola ere aldatu, konpentsatu edo beste norbaiti utzi.





Sergio Labrador urnietarra, uda honetan, sorterrian. AIURRI

Han, baina hemen bezala; edo hobe

Sergio Labrador urnietarrak 5 urte daramatza Txinako Zhangjiagang hirian bizitzen, Shanghaiatik gertu, Jie emaztea eta June alabarekin. Aste hauetan Euskal Herrira itzuli dira eta hango bizitzaren berri eman digu

Andoni Urbistondo URNIETA

Diseinatzaile grafikoa da Sergio (46 urte, Urnieta). Jie neska laguna ezagutu zuen Donostian 2007an, eta 2010ean ezkondu ziren. Uda guztietan joaten ziren Txinara, Zhangjiagang hirira, Jieren jaioterrira (Jiangsu probintzia, Shanghai hiritik 150 bat kilometrorra). 2018an denboraldi baterako hara bizitzera joatea erabaki zuten, eta bost urte pasa dira orduz geroztik. Hiria, inguru nolakoa den galdegin diogu Sergiori: “1.4 milioi biztanle ditu, baina ez da asko. Kontutan izan Txinan hiriek beste dimensio batzuk dituztela, oso handiak dira. Yangtse ibaiaren deltan dago hiria, Asia-

ko ibai luzeenaren ondoan. 6.300 kilometro ditu eta Shangain itsasoratzen da. Kanalez beteta dago, eta paraje laua da”.

Eguraldiak ematen dio buruko min gehien, haiek hezetasun handiko lurra baitira: “Negua gogorra da, hotza eta hezea, Urnietan baino hotzxeagoa, batez ere urtarrila eta otsailean. Uda, aldiz, oso beroa da, eta batez ere hezea. Asko sufritzen dut uztai-

2018AN DENBORALDI BATERAKO JOATEA ERABAKI ZUTEN, ETA BOST URTE PASA DIRA ORDUZ GEROZTIK

la eta abuztuan, ez naiz ohitu oraindik”. Onean eta txarrean, Txinan etxetako atea beti irekita daudela dio Sergiok: “Askotan txamarrak jantzita ibiltzen dira etxean neguan, udan beroak itota”.

Txina han dago, oso urrun. Zergatik Txina? “Etxetik lan egin nahi genuen emazteak eta biok. Eta etxetik ez bada, edozein txokotik, on line. Han eta hemenez ahal izateko, eta enpresa jakin batean fitxatzeko beharrik eduki gabe. Oporrak ere oso finkoak dira Euskal Herrian, udan hiru aste inguru, normalean, eta uztaila-abuztuan Zhangjiagang infernuaren pare da: 30 gradutik gora eta hezetasun

ikaragarria. Etxea eta familia daukagu Urnietan, eta beste horrenbeste Txinan, eta hara eta hona ibil gaitezke lasai”.

Sergio Txinako energia berrien enpresa batentzat ari da lanean, diseinu grafikoaren arloan; Jie emaztea, aldiz, nazioarteko komertzioan. Biak etxetik aritzen dira. 2017an June alaba jaio zen, eta hurrengo urtean Txinara mugitzea erabaki zuten. “June txineraz ondo ikastea nahi genuen. Ikasi du eta dagoeneko betirako izango du txinera ama hizkuntza, euskararekin batera”. Urnietarrak dioenez, June esaten erraza da txinatarrentzat, baina hango izena ere badauka: “Denekin egiten dute. Ni be- raientzat Da Hai (大海) naiz, itsaso handia”. Junek euskaraz hitz egiten du bere aitarekin, eta txineraz ama eta aitona-amonekin.

Txinerekin justu antzean moldatzen da Sergio. Jie-k ondo hitz egiten du gaztelania, eta hizkuntza horretan hitz egiten du bikoteak. “Txineraz ez naiz ondoegi moldatzen. Irauteko moduan. Ez da ikasteko hizkuntza erraza. 46 urte ditut dagoeneko, 20 urte izan banitu... Oso hizkuntza soinuatsua da, 4 tonu ezberdinekin (altua, gorakoa, baxua eta beheakoa) gei “bosgarren” neutro bat, berdindin esaten diren hitz askorekin, baina esanahi ezberdinekoak idazkera karaktereen arabera. Ulertze aldera, ‘zuò’ hitzak egin esan nahi du, baina baita ere eseri. ‘Nǐ zuò’ eser zaiten da, baina baita egin ezazu ere. Bertakoek zu ulertzeko ere gauzak perfektu esan behar dira, eta ez da erraza”. Ingelesa ikasi, ikasten omen dute txinatarrek, “baina ez dago maila on-onik. Euskal Herrian bezala”, bota du, ironiaz, Sergiok.

Bi urteko zikloa

2018an joan ziren Txinara, Urnietako bizimodua atzean utzita. Hasiera batean han bi urteko zikloa egiteko asmoarekin lekualdatu ziren. 2020an, baina, pandemia lehertu zen bete-betean, “eta han segitzen dugu, ondo”. Gurean pandemia Txinan sortu

TEKNOLOGIEN ALORREAN TXINAREN GARAPENA BERTAKOA BAINA HANDIAGO IZATEN ARI DA

zela zabaldu zen, han sortu zutela apropos, baina Sergiok bestelako azterketa egiten du: “Txinari buruz literatura eta desinformazio handia egiten da. Euskal Herrian pandemia garaian nola zeundeten esaten zidaten, eta Txinan nahiko ezberdina izan zen. Mugak egon dira, eta PCR asko egin ere bai, baina gu egunero irten gara kalera, eta musukoa toki publiko itxi batzuetan bakarrik eskatzen zen. Gero, han ez dago hemen egon den bizilagunen arteko kontrol soziala; jendea balkoietan kalean zebilen oro zelatatzen... Han hori pentsaezina da, herritarrek besteen askatasuna errespetatzen dute uneoro”.

Sergio lasai bizi da Txinan: “Bizitza hemengoaren parekoa da. Ibili egiten naiz asko, eta familia-bizitza egin, gustura. Urnietan eta Euskal Herrian dudana bizitza soziala falta zait, baina ez da erraza, hizkuntza ondo menperatzen ez baduzu”. Txinatarrek askotan elkartzen omen dira bazkaltzeko eta afaltzeko, etxetik kanpo, “baina afaldu eta goiz etxeratu egiten dira. Jatetxeak lepo daude ia beti han, egunero mugimendu handia dago”.

On-line salerosketan jartzen du arreta Sergiok: “Bolumen itzela mugitzen dute, eta Euskal Herria baino askoz garatuago dago herrialdea teknologia alorrean. Normala ere bada, 1.400 milioi biztanle dituen herria delako. Etxetik giltza eta sake-lakoaren ateratzen naiz normalean, ia dena telefonoarekin egin daitekelako. Hori automatizazioa eta erosotasuna da, baina kontrola ere bai. Egoera hori gero eta handiagoa da mundu guztian... orohar, erosotasunaren truke, pribatasuna murrizten ari gara”.

Zentsura, komunismoa...

Pandemia garaian bezala, Mendebaldean Txina eta Txinaren inguruko errelato edo kontakizun jakin bat helarazten zaio Mendebaldeko herritarri, eta errelato horrek egitiaz zenbat duen jakiteko lekukotza interresgarria ematen du Sergiok: “Nik, informatzeko, on line iturriak nahiago ditut, webguneak edo aplikazio batzuetako kanalak (You Tube-ekoak, Telegram-ekoak, eta abar). Ez dut telebista ikusten”. Txinan, sarean sartu ezin diren webguneak egon



Sergio urnietarra, Jie emaztearekin batera. SERGIOK UTZITAKOA



Zhangjiagang hirian bizi dira, Shanghaitik gertu. SERGIOK UTZITAKOA

badaudela dio: Google, Youtube, Facebook... “baina baita debekua sailhesteko IP-a estaltzen duten bitartekoak ere”. Eta garrantzitsuena, zentsuraz, adierazpen askatasunaz: “Txinan Euskal Herrian erabiltzen diren sare sozial guztien parekideak dituzte. Txinatarrek ez dute Google, Youtube, Facebook edo Twitter erabiltzen; batetik zentsuratuak daudelako, baina baita ere beraien hizkuntza eta idazkeran oinarrituta dauden sare sozialak dituztelako; errusiarrek eurenak

dituzten bezala. Adibidez, Youku Youtube-ren parekide txinatarra da”.

Txina asko hazi da azken hamarkadetan, eta laster munduan BPG Barne Produktu Gordin handiena duen munduko herrialdea bilakatuko omen da. Komunismoan oinarrituta lortuko ote du? Komunismoa Txinan indarrean bada, behintzat: “Ez dut asko ulertzen ekonomia sistemei buruz, baina ikusi eta ezagutu dudanagatik, esango nuke Txinakoa eredu mistoa

dela. Alegia, komunismoaz eta kapitalismoaz baliatzen da. Ageriagoa da Txina gero eta aberatsagoa dela, eta gero eta diru gehiago dagoela mugimenduan. Ekoizpena handiagoa da, diru gehiago dago, baina horrek ez du esan nahi Txinakoa sistema kapitalista muturrekoa denik. Herrialde komunista da? Bai. Gobernua herriko aberastasuna zabaltzen eta hobeto banatzen saiatzen dela esango nuke”.

Aberatsak gero eta gehiago dira Txinan, baina behartsuak,

edo muga-mugan bizi den jenderik ikusi ote du Sergiok bere egunerokoan? “Badago jende behartsua, zalantzarik ez, baina gero eta jende gehiago da ondo bizitzeko baliabideak dituena. Eraldaketa azkar doa. Soldatak igotzen doaz, eta sektore batzuetan soldatak oso onak dira. Azpiegiturak onak dira, eta etengabe ikusten dira hobekuntza lanak”. Estatua, Gobernua etengabeko automatizazioa sustatzen ari dela dio. “Administrazioa erraztea eta eraginkorrago bi-

lakatzea da asmoa, lana eta bizitza erosoago bihurtu... eta hori guztia kontrola ere bada, noski. Baina Europa ere bide berdinean doa”.

Egunerokoaz printza batzuk

Sergiok lan ordutegi bera dauka astelehenetik ostiralera: 08.30-11.30, bazkaldu, eta 13.00-17.30 txanda. Ondoren libre, aisiarako. Fabrika handietan oso errotuta omen dago hiru txandaren sistema. Jasotzen duen soldataren inguruan galdetu diogu: “Euskal Herrian neukan soldataren antzekoa jasotzen dut, baina bizitza dezentez merkeagoa da Txinan”. Adibide batzuk emateko eskatu diogu: “Nahizate aldera, jatetxe garesti eta merke asko topa ditzakezu, baina arroz edo pasta plater handi bat, osagai askorekin, bizpahiru euro ordainduz jan zenezake. 10 euroekin oso otordu oparoa egin dezakezu”.

Erregaiaren salneurria ere adibide ona da: “Urnietan baino askoz merkeagoa da”. Eta alokairuaz zer? “Prezio aukera oso zabala da, baina merkeagoa da orohar. Adibidez, 100 bat metro koadroko etxe batengatik 300 bat euro ordaindu daitezke hilabeteko”. Etxe bat jabetzan erostearen konparazioa, azkena: “Hiri erdian etxe on batek Urnietako etxe batek bezala balio dezake”.

Etorikizuneko asmoak. Luze-rako geratuko al dira Da Hai, Jie eta June Txinan? “Gustura gaude han, baina hemengo etxea ere mantentzen dut... Hara eta hona jauzika ibil bagaitzke, ezin hobe. Batean ondo bagaude, ba han. Batean egoera txartzten bada, ba beste tokira mugitu. Oso gustura nago Txinan. Hona etortzen naizenean sarri entzuten dut Txina diktadura dela, gaiztoetan gaiztoena; Ukrainako gerran ere Errusiaren aliatua dela eta beste... baina ikuspegi eurozentrismoaren estrategia interesatuak baino ez dira. Txina ez da herri belikoa berez, ekoizlea eta saltzailea baizik, eta egiten duen ekimen oro behar duten inportazioetarako eta ekoizten duten esportazioetarako kanalak sortu eta bermatzeko da. Munduaren esplotatzaile Mendebaldeko beste herrialde batzuk dira betidanik eta horiek egoera berdina betiko mantentzea nahi dute”.



Kaletxikin bezala, Buruntzan ere eusten diote Soka-dantzari. Abuztuaren 16an izan zen, San Roke egunarekin bat eginez. AIURRI

San Roke eguna, Buruntzan

Jai egitaraua aurrera ateratzea ez da lan makala, eta egindakoa ez zen gutxi izan. Auzoa eraldatzen ari den garaiotan, beharrezkoa da elkartzea. Auzotarrak komunitateko partaide direla sentitu daitezten, jaiaz gozatuz, bizitza bera ospatzeko

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Iturri zaharretik iristen den ur berria bezala, ohiturazkoa den egitarauari heltzeko nahikoa emari izan da Buruntzako jaietan. Emaria, berria den heinean, aldaketa txiki batzuekin iritsi da. Malkar krosa ez da egiterik izan, eta izan dira hitzordu hori faltan bota duten kirolariak. Aurreko urteetan lasterketa gauzatzeko jai batzordetik egin duten lana eskertzea besterik ez dago, eta geroak esango du nahikoa baliabide dauden lasterketa eder hori errepikatzen.

Lasterketaren erreka toa lehor badator ere, beste batzuk bizibizi iritsi dira. Bereziki, abuztuaren 15eko arratsaldearekin eta abuztuaren 16arekin loturikoak.

Musika doinuaz abiatu ziren ospakizunak, eskarmentu handiko musikari hirukotearen eskutik. Susana Cenciloren emanaldietan ezagutu ditugu, baina musikari bakoitzak ibilbide oparoa osatu du zuzenekoetan eta musika hezkuntzan. Duten mailaren lekuko izan ziren emanaldira bertaratu zirenak.

San Roke eguna ekitaldiz beterikoa izan zen. Kaletxikin bezala, Buruntzan Soka-dantzari eusten diote. Olagain txistularien doinupean, Urkiko dantzariak eta auzora hurbildutako herritarrek dantzarako ohitura biziberritu zuten. Segidan, Gora Kaletxiki txarangak "Buruntza" kantuaren estreinaldia egin zuen. Bertso bazkariarekin eta erromeriarekin osatu zen eguna.

Jai egitarau osoa aurrera ateratzea ez da lan makala, eta egindakoa ez zen gutxi izan. Auzoa eraldatzen ari den garaiotan, beharrezkoa baita elkartzea. Auzotarrak komunitateko partaide direla senti daitezten, auzokideekin batera jaiaz gozatuz, bizitza bera ospatzeko.

Iturri zaharretik, beraz, bada emaria. Txiri-txiri dator urteotan, baina ez dirudi lehortzeko arriskurik dagoenik. Auzotarren egarria asetzeko lain iritsiz gero, pozik egon gintezke.



Oiartzabalek sortu eta Berrondok hitzak jarritako "Buruntza" kantuaren estreinaldia izan da aurtengoa. AIURRI



Abuztuaren 15ean musika emanaldiarekin hasiera eman zieten ospakizunei. AIURRI



Izaskun Beraza kapitainaren esanetara, ikuslegoaren harridura eta txalo zaparrada eragin zuen saioa eskaini zuten Adunako eta Andoaingo axeriek. AIURRI

Axeri-gorriek Donostiara salto egin zutenekoa

Adunako eta Andoaingo axerien ordezkariak Konstituzio plazako oholtzan aritu zen dantzan, abuztuaren 12an. Donostiako Txistularien emanaldi nagusian izan zen, eta axeriek ikuslegoa aho bete hortz utzi zuten. Gaueko ezusteko atsegina izan zen

Xabier Lasa ANDOAIN

Tarteka, ezusteko atseginak ematen dira. Eta, kasu honetan, ezustekoa bikoitza izan zen. Axeriak abuztuaren 12an abiatu ziren Donostiara, ez ohikoa den sasoiaren eta tokian emanaldia egitera. Haietako gehienek, hara iritsi bitarte, ez zuten neurtu gonbidapen bereziaren oihartzuna. Emanaldiari hasiera eman aurretik, Donostiako Konstituzio plaza jendez lepo ikustea edonor urduritzeko moduko trantzea da. Une horietan, agian, baten bat damutu ote zen. Denbora tarte txikia iraun zuen sentsazioa izan zen. Beldurra poza bilakatu baitzen, txistularien doinupean, behin dantzan hasi eta gero. Ezusteko atsegina izan zen, bai axerientzat, bai ikuslegoarentzat. Zurrunak eta prebisibleak baitira dantza tradizionalak, orokorrean. Axerien proposamena guztiz ezberdina da. Txantxa eta umorea zabalduz, ikuslegoaren



Axeriak eta Belamendia. AIURRI

begietara betikotik urruntzen den saiotxo eskaini zuten.

Jon Ander Belamendia Olagain Txistulari Bandako zuzendaria aritu zen bakarlari gisa, oholtza gainean. Bi zatitan banatu zuten emanaldia, axeriek. Lehenbiziko zatian, *Aitarena*, *Zortzikoa* eta *Orratzakoa* izeneko jokoak dantzatu zituzten, eta, bigarren-

goan, *Txingoa*, *Perratzea* eta *Dorrea*. Jose Inazio Ansorenak zuzendu zuen kontzertuaren amaieran, berriz, Iruñatarra abestian ere parte hartu zuten, plazan bildu zen ikuslea zirikatze lanetan. Txistulari alardean izan ziren, aldi berean, Olagain Udal Txistularien elkarteko Joxema Setien eta Iñaki Aizpurua.

Bestalde, gonbidaturen artean, aipatzekoa ere bada Imanol Iribarren piano-jole andoaindarra. Aldapeko Basque Latin Jazz proiektuko bi abesti eskaini zituen: *Soka-dantza* eta *Molinatxo*. Gaua igarota, eta egunak aurrera joan ahala, emanaldia gogoangarria izan zen axerientzat. Telebista bidez ikusi ahal izan zen emanaldia, eta zalantzarik ez andoaindar ugari harro sentitu zirela Andoainen berezkoa den ohitura pantaila txikian ikusita. Baditu Andoain herriak harro egoteko motiboak, eta hauxe da horietako bat da.



Dorrea ikusgarria izan zen. Txalo zaparrada jaso zuten axeriek. AIURRI



Axeriak eta txistulariak, elkarrekin, emanaldia amaitu berrian. AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**Axerien erakustaldia
Donostiako Jaietan**

Argazki-bilduma eta bideoak
KLIK BAKARRERA



www.aiurri.eus



Auzo bazkariko omenaldia hunkigarria izan zen. Bereziki, Sara Caballero gogoan hartu zutenean. AIURRI

Asteburu oparoa, Etxeberrietan

Beste urte batez, auzoko jai batzordeak ekitaldiz beteriko asteburu osatu ahal izan zuen. Lagun askoren ekarpenagatik, hori bai. Haien ekimenari esker auzotarrek ekitaldi ezberdinekin gozatzeko aukera izan zuten

Xabier Lasa ANDOAIN

Saninazioak ospatzen dira Etxeberrietan, eta, aurtengoan, uztailearen 31 izan da jaietako azken eguna. Goiburuko auzotarren bisitaldia jaso zuten, goizean. Haiek oilasko biltzaileen eguna ospatzen zuten, jaien atariko bilakatu dena. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Etxeberrietarrek harrera egin zieten goiburuari. Laguntasun handia dago bi auzoen artean, izan ere, jaietako desafioan Goiburu izan zen aurtengo gonbidatua.

Etxeberrietako auzo bazkarian umore ona eta adiskidetasuna nagusitu ziren. Une hunkigarriak bizi izan ziren, gainera. Jai Batzordeak, bazkalostean, hainbat auzotar izan zituen gogoan. Horien artean, Sara Caballero auzokidea. Gazterik hil zen, joan zen martxoan, eta haren senitartekoek eskerronez jaso zuten auzotarren aitortza. Zaila malkoei eustea, une horietan. Aurrekua eskaini zieten, Jon Ander Bela-

mendia txistulariaren eta Mad-di Parada dantzariaren eskutik. Caballero pertsona maitagarria zen Etxeberrietako auzotarrentzat. Haren heriotzak saminez bete zuten auzoa.

Caballeroz gain, beste bi lagun izan zituzten gogoan. Alde batetik, Jai Batzordearen laguntzaile fina den Julian Zipitria. Pia Mujika 90 urteko auzotarra ere gogoan hartu zuten. 96 urte dituen Pepita Izagirre eta biak dira, egun, auzoan adinez helduenak direnak.

Jaien hasieran, haurrak protagonista

Larunbat goizean jokoak, tailek eta puzgarriak ikusita, argi zegoen haurrak zirela jaien hasierako protagonista nagusiak. Arratsaldeko sagardo dastaketara herrikide ugari hurbildu ziren. Lastima iluntze aldera eguraldia aldatu zela. Euriak agerpena egin zuten, auzoko zelaietan afari-merienda ospatzean.

Iluntzean bezala, goizaldean ere euria nagusitu zen. Bustitik igaro zen auzoko herri krosa. Zumeatarrako Javi Menta gailendu zen, zehazki, 15:00 minutuko denborarekin. Beranduago iritsi ziren Raul Gomez lasartearra eta Marcos Zaldibia azkoitiarra. Ion Lanz eta Ander Setien lehen hamar postuetan sailkatu ziren. Emakumezkoetan Lourdes Colomo zizurkildarra nagusitu zen, Izaskun Arriaga gasteiztarra eta Irati Aldasoro donostiarraren aurretik. Kanpoko kirolari ugari, beraz, parte hartzaileen artean.

Lasterketa amaituta, 1976-1977 denboraldian jubencil mailako Liga Nazionalera igotzea lortu zuten Euskaldunako jokalariei aitortza egin zieten. Orain 46 urte merit handiko balentria egin zuten hainbat jokalaririk hurbildu ziren omenaldi ekitaldira.

Hitzordu gehiago izan zen Etxeberrietan, ekitaldiz beteriko asteburu oparoa osatuz.

Jaiaren muinari eutsi diote



Lagun askoren lanari esker ateratzen dira jaiak aurrera. AIURRI

Lantalde fina Auzo bazkaria eta jaietako edozein hitzordu aurrera ateratzeko ezinbestekoa da itzalean egiten den lana. Etxeberrietako jaietan lan eta lan aritu ziren auzotarrak ez ziren gutxi izan. Haietako batzuk argazkian ageri dira.



Omenaldi ekitaldia jaietan. AIURRI

Omenaldia Jubencil mailako Euskalduna taldeak, iraganean, maila bikaina eskaini zuen Gipuzkoako futbol zelaietan. Garai oparo hura gogoan hartuz, talde hartako protagonistak omendu zituen Jai Batzordeak.



Danborrada Etxeberrieta atzealdean. AIURRI

Danborrada Karrikakoek ezin izan diote eutsi danborradari, aurtengoan. Etxeberrietan, aldiz, beste urte batez aspaldiko ohitura biziberritu zuten. Danborra joz auzoko hainbat txokotara iritsi ziren.



Goiburuko eta Etxeberrietako ordezkariak, desapiyua amaitu berrikan. AIURRI




Zenbait proba egin zituzten, eta desapiyuan adin guztietako auzokideek parte hartu zuten. AIURRI



Dantzaldia, ezinbestekoa Etxeberrietan. AIURRI



Sagardo tiratzaile trebea. AIURRI



European igaro zen bost kilometroko lasterketa. AIURRI





Axerien eta Sega elkarteko gazteen arteko desapiyua gogoangarria izan zen. AIURRI

Goiburuko jaiak, gogoangarriak

Badira jai baldintzatzera iristen diren aldagaiak. Euria horietako bat da, baina euria egin arren, Goiburuko hitzordu ugari gogoangarriak izan dira. Besteak beste, Oilasko biltzaileen ospakizuna, San Esteban eguna, desapiyua eta erromeri eguna

Xabier Lasa ANDOAIN

Gozamena da Goiburura iristea eta hainbeste lagun lanean aurkitzea. Ez dira bost, sei, zazpi. Askoz gehiago dira! Haien guztien eskulana behar-beharrezkoa zen euritik babesteko lanak zintzilikatzeke, txosna prestatzeko... Belaunaldi ezberdinen arteko adiskidetasun horri esker, askoz errazagoa dirudi dena. Lana ez da desagertzen, baina lanarekiko jarrera oso bestelakoa izaten da, giro ona eta sana dagoenean. Horri guztiari eusten dioten bitartean, Goiburuko San Esteban jaiak bikainak izango dira auzotarrentzat eta bertara goazen bisitariontzat. San Inazio egunean egin zuten estreinaldia, eurentzat propio egindako ospakizunean. Oilasko biltzea jaiari hasiera emateko hitzordua da. Herrigunera jaitsi ziren, eta, Etxeberrietako auzokideekin

lagunarteko hamaiketako egin eta gero, auzora igo ziren berriro. Ezusteko galanta topatu zuten bertan, Lebiton konpartsako erraldoiak agertu baitziren auzoan! Egun gogoangarria izan zen, egun eder gehiagoren atariko. Jaietan euriak agerpena

egin zuen arren, San Esteban eguna, desapiyua, erromeri eguna eta aurrikusitako otordu guztiak bikain igaro ziren. Ondo hasitakoa bikain amaitu zen, Goiburu aldean. Datorren abuztua noiz iritsiko zain da bat baino gehiago.



Erromeriak garrantzia berezia izan du aurtengo jaietan. AIURRI

Auzolanari esker egiten dira jaiak



Euriak agerpena egin zuen jaietan. AIURRI



Segako gazteak gogotik aritu ziren lanean jaietan. AIURRI



Goiburuko jaietako txosna eta sukaldea ezinbestekoak dira. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Zuhaitzen gerizpean otordu gustagarriak egin ziren jaietan, auzoko plazan. AIURRI



Zutik elektrotzarangak auzoa girotu zuen, larunbat arratsaldean. AIURRI

Bus-zerbitzua, laguntza handikoa

Auzora igo eta jaisteko bus-zerbitzua garrantzi handikoa bilakatu da. Dozenaka herrikidek erabili zuen, jaietara igotzeko eta etxera itzultzeko. Dagoeneko, ez da bus-zerbitzurik gabeko jairik aurrikusten. Eta ez gara, soilik, adineko herrikidez ari. Gizarte osoak baliatzen du.



AIURRI



KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

Dagoeneko izena eman liteke Andoaingo Guduari buruzko ibilaldi gidatuan parte hartzeko

Irailaren 16an, larunbatarekin, antolatu du Larramendi Bazkunak. Goizeko 11:00tan hasiko da Andoaingo Guduari buruzko ibilaldi gidatua Goikoplazan eta Jon Unanuek zuzenduko du Unanibiko zubian amaiera eman arte. Ordu pare batez Andoaingo kale eta txokoetan barrena ibiliz herrian izan den gertakari historiko larrimendakoaren berri emango dute Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolaturiko ibilaldian. Parte hartzeko aurretik izena eman behar da, harrera@larramendibazkuna.eus helbidera idatzi eta parte hartuko duten lagun guztien izen-deitura eta harremanetarako telefono zenbakia emanda. Partaide kopurua mugatua izango da eta ibilaldiko azalpen guztiak euskaraz izango dira. Ibiltzeko zapata egokiak eraman behar dira.

1837ko irailaren 14an gertatu zen Andoaingo Gudua, lehenengo Karlismaldian. Carlos erregegaia bere gudarostearekin Madrilerantz joan izana baliatuz, O'Donell jeneral liberalak Donostia eta Hernanitik bere agindupeko tropak, 7.000 gizon inguru, Andoainera ekarri zituen eta kanpamendua Goikoplazan ipini, inguruan ziren soldadu karlistak Oria eta Leitzarain ibaien bestalderantz uxatu eta bidean izua, hondamendia eta bortxa zabaldu ondoren. Aurreabide horren albistea jaso bezain laster, Uranga jeneral karlista Nafarroatik batailo batzuekin etorri eta kontraerasoa antolatu zuen, horretarako 3.500 mutil bildurik. Irailaren 14an jo zuten kontraerasoa karlistek eta O'Donell engainatu ondoren oso borroka gogorak izan ziren Andoaingo kaleetan barrena. Egun hartako borroketan 600-800 lagun inguru hil zen, gehienak gudaroste liberalakoak, haien artean Karlismaldian borroka egitera Erresuma Batutik etorritako Legio britainiarreko ingeles, eskoziar eta irlandarrak.

Andoaingo herriak eta aldirikoez hondamendi handia jasan zuten: Andoain 55 baserri guztiz kiskali zituzten, bertakoak ihesean jarri ondoren; Urnietan herri ia osoa kiskali zuten, bost etxe besterik ez zen zutik gelditu. Lehenengo karlistaldian izandako gudurik ankerrenetakoa izan zen, historiografia ofizialak nahikoa bazterrean utzi izan duena alderdi epiko handirik ez eta herritarren oso oldarraldi gogorra eragin zuelako. Izan ere, soldadu karlistekin batera herritarrek izan ziren gogorren jo zutenak gudaroste liberalaren aurka, mendekua eskatuz "ez da kuartelik su ematen dutenentzat!" oihuaren oihartzunaz.

Horri guztiari buruzko azalpenak entzun eta gertakariak izan ziren lekuak ikusi ahal izango dituzte partaideek, Lizarkolako ubidea baliatuz Leitzarain ibaian gora egin eta azkena Unanibiko zubian amaitzeraino.

Zalantzak 656-782-521 zenbakira deituta argi litezke.



Erredakzioa ESKUALDEA

Uda amaitzearekin batera, ikasurte berriaren jardunari ekin diote berriro ere askok. Maletak hustu eta eguneroko martxari eusteko unea ailegatu zaio bati baino gehiagori, irailko lehen egunetan. Arduren, zereginen eta erantzukizunen artean, bada, ordea, motibaziorik. Hori horrela, urtero-urtero, euskaran trebatzeko konpromisoa hartzen dute zenbait herritarrek, AEKren eta Udal Euskaltegien laguntzarekin, aurrera egiteko grinez.

Askotariko helburuak medio egiten dute bat herritarrek euskara ikasteko bidean. Hala, premia orori dagokion doinu eta neurrian erantzuteko prest dira eskualdeko euskaltegiak: maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza daukate aukeran.

Euskara ikasteko arrazoi adina aukera bermatzen ditu Buruntzaldeak: guztira, zortzi euskaltegi biltzen ditu eskualdeak; bana, Andoainean, Urnietan eta Usurbilen; bina, berriz, Hernanin eta Lasarten. Goiz eguerdi eta arratsalde, astelehenetik ostiralera bitarte, abaniko zabala dute eskuen artean euskaran trebatzeko gogoia duten herritarrek, aurrez aurreko ikastaroaren bidez, baita autoikaskuntza hautatuta ere.

Hori gutxi balitz bezala, diruz laguntzen dute eskualdeko udalek ikasketa-prozesua: tokian-tokian baldintzak eta ezaugarriak aldakorak izan arren, udalerriguztiek bermatzen dute gutxieneko babes ekonomikoa. Halaber, HABEk ere diru-laguntzak ematen ditu, baldin eta erakundeak ezarritako maila edo baliokidea eskuratzen badu ikasleak.



Buruntzaldeko euskaltegiatako kideak, Astigarragan ateratako familia-argazkian. AIURRI

Euskara ikasi, mihia zorrozteko

Beste urte batez, kalitateko hezkuntza bermatu nahi diete eskualdeko zortzi euskaltegiek euskara ikasteko motibazioa agertzen duten herritarrei. Maila guztiei begirako eskaintza malgua dute

Ateak irekita

Prest da Hernaniko Udal Euskaltegia, 2023-24 ikasturteari begira, euskaran trebatzeko gogoia duten herritarrek jasotzeko. Bada, bertako irakasle da Izaskun Arrieta eta elkarren artean antzekotasunik ez duten bi mailatan egiten du lan: batetik, hasi berri direnekin, alegia, A1 mailakoekin eta, bestetik, 17 urteko nerabeekin, C1-aren prestaketan. Profil an-

tzeko jendea biltzen da euskaltegian; hortaz, bakoitzaren neurri-egokitutako estrategiak erabiltzen dituzte irakasleek hizkuntza erakusteko. Ildo beretik, gustuko du kontrastea Arrietak, maila bakoitzak bere esizientziak eta pazientziak eskatzen dituelako. Dena dela, maiz, hizkuntza bat ikasteak dakartzan buruhausteak buruhauste, irakaslearen hitzetan, "ederra izaten da ikas-

turte amaieran emaitzak ikustea, aurrerapausoak eman dituztela antzematea". Askorentzat egindako lanaren aitortza da titulua eskuratzea, baina ikasketa-prozesuan ere begirada ipini du irakasleak: "Jende asko euskaldundu da gurean". Eguneroko ordea, makina bat erronkarekin egiten dute topo irakasleek: "Atzean gelditu den hori nola motibatu asmatzea ere badugu xede".

Azken hiru hamarkadei erreparatuta, euskarak prestigioa galdu duelakoan da Arrieta, nerabeen artean, besteak beste. Era berean, irakaslearen esanetan, "behe urratsetan", Euskal Herria zer den ez dakitela gerturatzeko dira asko euskaltegiara, izena ematera. Hori horrela, hutsune horri erantzute aldera, hizkuntza bera ikastea ez ezik, euskal komunitatera ere atea irekitzen dizkie euskaltegiak ikasleei, beren egunerokoa, erreferentziak eta euskaraz jarduteko espazioak izan ditzaten, bai ikasgelan, bai bertatik kanpo egiten dituzten jardueretan.

Taldean ikasteko aukera

Motibazioa soberan dauka Rocio Arias Andoainean bizi den urnietarrak urtero-urtero herriko AEK euskaltegian izena emateko. Ezer gutxi zekien euskaraz lehen, ikasketa guztiak gaztelaniaz egin baititu. Horrela, hutsetik hasi zen hizkuntzan trebatzen eta sei urte daramatza buru-belarri bertan, aurrez aurreko klaseak jasotzen. Egun B2-B1 mailan dago (entzumena/irakurmena-idazmena/mintzamina). Titulurik ez duela behar dio, eta, horrela, haren hitzetan, ez dio gehiegizko presiorik jartzen bere buruari: "Oso gustuko dut hizkuntza taldean ikastea, eta harreman polita dugu irakaslearekin. Gelakide asko ez nituen lehenago ezagutzen, gainera". Elkarri laguntzen diotela azaldu du ikasleak, eta klaseak "dinamikoak, arinak eta erosoak" iruditzen zaizkio: "Jakina izanez gero, proba dezala jendeak". Gauzak horrela, irakurle, eskuen artean duzu ikasturteari begirako erronka berria: euskaltegian izena eman eta euskaran trebatzea, mihia zorroztea.

Euskara ikasteko diru-laguntzak

Andoain

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Andoainean errolatuta egotea (gutxienez, 6 hilabete) eta % 85eko asistentzia. Diru-laguntzak: ohikoa matrikularen %90, eta %100 honako kolektiboentzat: diru-sarrera baxuak dituztenak (ikus baldintzak), familia ugarien kideak, Andoaingo merkataritza eta ostalaritzako langile andoaindarra, A1 maila egin duena...

Astigarraga

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Astigarragan errolatuta egotea eta %85eko asistentzia.

Diru-laguntzak: matrikularen % 100, oinarritzko errenta jasotzen dutenek, Udalaren larrialdi laguntza jasotzen dutenek, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoek, familia ugari-ko kideek, unibertsitateko edo lanbide heziketako ikasleek, mer-

katariek, langabetuek eta azken hiru urteetan hiru maila gainditu dituztenek. Gainerakoek, matrikularen % 75.

Hernani

Baldintzak: Hernanin errolatuta egotea, eta % 85eko asistentzia.

Diru-laguntzak: Astean 10 ordu-tik beherako ikastaroak: langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaita-

sunak duten pertsonen matrikularen % 90 eta gainerakoek matrikularen % 70. Astean 10 ordu-tik gorako ikastaroak: langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasuna duten pertsonen matrikularen % 100. Gainerakoek matrikularen % 75.

Lasarte-Oria

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Lasarte-Orian errolatuta egotea, % 85eko asistentzia.

Diru-laguntzak: matrikularen %85a gehienez ere.

Urnietan

Baldintzak: Errolatuta egotea, %80ko asistentzia. Diru-laguntzak: % 100 gehienez ere langabetuentzat % 85, gehienez ere, lanean ari direnentzat.

Usurbil

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, errolatuta egotea, %80ko asistentzia eta aprobetxamendu egokia. Laguntzak: matrikula osoa.

*Xehetasun gehiago udal bakoitzaren web orrialdean

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



Jo gogoko duzun euskaltegia eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2
943 591 704
andoain@aek.eus

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea, 17 behe
607 625 233
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi, 11
943 557 801 - 607 592 864
Zilegi eskola: 663 043 314
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia, 43 behe
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia, 48
607 610 687
astigarraga@aek.eus

**Lasarte-Oriako
Udal Euskaltegia**

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943 361 621
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko
Udal Euskaltegia**

Karobieta, 63
(anbulatorio zaharra)
943 331 896
euskaltegi@hernani.eus

URNIETA

Urnietako AEK
San Joan, 42 (Elkarteen etxea)
662 338 747
urnieta@aek.eus

**Eus
ka
ra
ikasiz**

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



Buruntzaldea
euskaraz



Ander Gallo Donostiako Hipodromoan, debuteko egunean. ARGINDAR



Gallo, Frantzian. ARGINDAR

Lehen garaipena eskuratu du

Iragan igandean Ander Gallo andoaindarrak lehen garaipena lortu zuen Pompadour herriko hipodromoan (Frantzia). Jockey gazteak Zubietako hipodromoan egin zuen debuta eta, egun gutxira, garaipena zer den bizi izan zuen. Ikasteko asko duen arren, bere garapenerako bikain datorkio garaipena eskuratu izana.



Gallo, lehen lasterketa ostean. ARGINDAR

"Berezia izan zen debuta"

ANDER GALLO JOCKEYA

Andoaindar gazteak 18 urterekin Donostiako Hipodromoan egin zuen debuta, iragan abuztuaren 13an. Egun gutxira lehen garaipena eskuratu zuen Frantzian

laren mantenuaz arduratu, beste gauza batzuen artean. Ia lehen egunetik aritu nintzen zaldi gainean, gutxinaka-gutxinaka ikasteko.

Zer behar du pertsona batek hipika praktikatzeko hasteko?

Ez dakit zer esan, pertsona bakoitza ezberdina da. Nire kasuan, ez zitzaidan zaila egin, baina, hasiera batean, zertxobait kostatzen da. Gehiago entrenatu eta ibili ahala, tamaina hartzen hasten zara eta erraztasuna hartzen diozu hipikari.

Sarritan esan ohi da zaldiarekin sortzen den harremana oso berezia dela. Ala al da?

Bai. Egia da ere, zaldiaren araberakoa dela harreman hori. Batzuekin harreman hori sortzea gehiago kostatzen da, baina beste batzuekin bat-batekoa izaten da konexioa. Horrez gain, lehen

esan bezala, egunero denbora luzez egoten zara zaldiarekin, eta, beraz, nahigabe ere bien arteko lotura bat sortzen da.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu egunerokotasunean?

Azpimarratu beharra dago bi entrenamendu mota nagusi daukela; batetik, zaldiek hipodromoan egiten dutena eta, bestetik, jockeyok zaldiekin egiten duguna. Nire kasuan, zaldi gainean entrenatzen dudanean, pausoka, trostan eta galopan aritzen gara; hau da, pixkanaka erritmoa handitzen dugu. Azkenean, berriro ere pausoka amaitzen dugu. Saioarean ostean, zaldia garbitu eta jatekoa ematen diogu. Esandakoa egunero egiten dugu.

Zer pentsatu zenuen Donostiako Hipodromoan debutatuko zenuela jakin zenuenean?

Izugarri poztu nintzen. Debuteko eguna iritsi bitartean urduri jartzen hasi nintzen, baina egun hura oso berezia izan zen. Pistara atera eta zale guztiak ikusi nituenean harrituta eta pozarren jarri nintzen; guztiak zortea opa zidaten, oihuka, giro ezin hobean. Oso berezia izan zen. Hala ere, oraindik ere asko dut ikasteke, ardura handiagoa dut, eta, maila altuan nagoenez, beste jockey profesionalen aurka lehiatu beharko dut. Beraz, gogor entrenatu beharko dut hurrengo hilabeteetan.

"DONOSTIAKO HIPODROMOAN ETA JENDETZAREN AURREAN PRESIOA NABARITU NUEN"

Mikel Arberas ANDOAIN

Nolatan hasi zinen hipika praktikatzeko?

Amaren lagun baten eskutik aukera paregabea sortu zitzaidan eta zalditegian lanean hasi nintzen 14 urterekin. Lan egitearekin batera, zaldi gainean praktikatzeari ere ekin nion, gaur arte. Esan beharra dago, iaz hasi nintzela seriotasun handiagorekin entrenatzen.

Zertan oinarritzen da lan hori?

Zaldiaren zainketaz arduratzen naizela esan daiteke. Hau da, lo egiten duen lekua garbitu eta txukundu, zikindutako ura aldatu, jatekoa eman eta materia-

Gustura lehiatu al zinen lehen aldian?

Bai, jakina. Era berean, presio dezente sentitu nuen. Pentsa ezazue, Donostiako Hipodromoan nire profesional mailako lehen lasterketa egitear nengoen, ehundaka ikusleren aurrean.

Lehen lasterketan azken postuan sailkatu zinen, baina zaleek ondo baloratu zintuzten...

Bai, halaxe da. Zaila da lehen lasterketan parte hartu eta denbora gutxian tamaina hartzea, baina, neurri batean, gustura geratu nintzen. Datozen lasterketei begira badaukat eta badaikit zer hobetu. Gutxinaka neurria hartuko diodala pentsatzen dut. Askok ikasteke eta hobetzeke.

Epe labur eta ertainean zein helburu dituzu?

Lehen esan bezala, oraindik asko ikasi behar dut. Hamazortzi urteko gazte bat naiz, beraz, hobetzea dut xede eta, batez ere, etapa berriaz gozatu nahi dut orain.

Andoni Urbistondo URNIETA

Imanol Ansa gazte bizia da (Urnieta, 27 urte), eta hiztun ona. Kazetarion pagotxa. Erantzun hausnartuak eman zalea da, zintzoak, esan bakoitzarekin bere izateko modua erakutsi nahi balu bezala. Larunbateko finalak elkarrizketa eskaera asko ekarri dizkio, eta bere hitzak watsap audio bitartez helarazi dizkio Aiurri-ri: "Hurrengo astean zuek lehenak izango zarete, txapela irabazten badut", bota du txantxetan.

Zer moduz joan da txapelketa?

Ezin hobe, nahieran. Eskatu ahal izan banu, izan den modukoa izango zen. Arazo fisiko txiki batzuk izan ditut, baina garrantzirik gabekoak, jokoan eraginik izan ez dutenak. Ohiko arazoak. Lan saio onak egin ditut. Masters-a irabazi izanak konfiantza eman dit, onenekin egoteko gai naizela sinetsi. Abuztuak hila-bete arraroak izan ohi dira niretzat: enpresak itxi egiten du, buruz burukoa prestatzeko entrenamendu asko egin behar, aisiarako denbora asko baina lagunekin plan asko ezin egin... Esaten nion nire buruari, abuztua iritsi eta ez zela posible itota ibiltzea. Oso zentratuta egon naiz txapelketa osoan, prestakuntzari neurria hartu eta erregularra izan naiz partida guztietan. Maila ona eman dut eta oso kontent nago orain arte eginda-koarekin.

Final handirako txartela azken jardunaldia baino lehen lortu zenuen. Ze garrantzia dauka lorpen horrek?

Azken bi ekitaldietan bigarren sailkatu nintzen ligatxoan, eta horrek erregularitasuna badudala esan nahi du. Urte batean bi tantogatik geratu nintzen finaletik kanpo. Zaila da zuzenean finalerako sailkatzea, maila handia delako. Masters-a irabazi eta jendeak esaten zidan: 'hemendik aurrera denak irabaziko dituzu, zailena lehenengoa da'. Nik bes-telako hausnarketa egin nuen. Langa ze goien dagoen ikusi nuen, fisikoki eta buruz ondo egin behar duzula, xestoarekin eroso egon beharra... Puntu hori lortzea ez da batere erraza, baina aldi berean esango nuke badakidala nola lortu puntu horretara iristea. Ezustekoa izan da zuzenean finalerako txartela lortzea, bai, baina jokoan erakutsi dudana ziurtasunaren ondorioa da.

Azken urteetako bi izarrak, Javi Urriza eta Endika Barrenetxea fina-

“Ondo nago, baina iraganak arrakasta lortzea zein zaila den erakutsi dit”

IMANOL ANSA ERREMONTISTA

Buruz buruko finala jokatuko du urnietarrak larunbatean Aritz Juanenea lagunaren aurka; hamarkada bat darama txapelaren bila, eta bideak zuhur izaten erakutsi dio



Imanol Ansa, artxiboko irudian. OIAMENDI

letik kanpo geratu dira. Ze hausnarketa eragiten dizu horrek?

Banandu egingo nituzke biak. Endikaren kasuan, iaz masters-ean bitan irabazi nion, eta biok nabaritu genuen beragandik gero eta hurbilago nengoela. Lehena-gera agerikoa zen bera gainetik zegoela. Berak hala sentitzen zuen, eta nik arazorik gabe onartu. Bi partida horiek irabazi nizkionean oso hitz politak eskaini zizkidan, errespetua hartu zidala nabaritu nuen: nola entrenatzen nintzen, zenbat saiatzen nintzen... Aurten elkarren aurka aritu garenean parez pare aritu garela esango nuke. Ligatxoan irabazi egin zidan, baina nik oso kontent bukatu nuen, peloteoan hobe izan bainintzen. Hasieran sakearekin takada ona

egin zidan, eta horregatik galdu nuen, baina bera menderatzeko gai sentitu nintzen. Ligatxoan ez da erregularra izan Endika, opari batzuk egin ditu. Urrizaren aurka galdu zuen, eta Juanenearen aurka ere bai, finalerdian. Ez da hainbesteko ezustekoa izan finaletik kanpo geratu izana.

Urrizari irabaztea gauza handia izan zen...

Ikaragarri espeziala, sekulakoa. Arantza handia neukan sartua berarekin, bere aurka jokatutako azken lau finalak galdu nituelako jarraian bikoteka. Tanto gutxigatik galdu, gainera. Juanenearen aurka galdu zuen Urrizak, eta ezustekoa izan zen niretzat. Ezustekoa Urriza 16-9 aurretik jarri zelako, eta horrelakoetan nafarrak ez du barkatzen.

Nik irabazi nionean poza baino sentsazio arraroak sentitu nituen. Galtzera ohitu ninduen Javik, eta emozio pilaketa handia sentitu nuen. Partida egunean ez nuen halako euforiarik sentitu, baina biharamunean bai, eta Eugenio osabarekin bazkari ederra egin nuen parrillan bisigu eder bat dastatuta. Abuztuko unerik politena izan da. Urriza idolo bat izan da niretzat, erreferentea, sailetik aparte dagoen norbait. Askok kostako da bera bezalako erremontista bat sortzea, beste guztiak baino eskailera eta erdi gorago baitago. Esku pilotan, Jakak eta Elordik txapelen bat lapurtu diote Altunari, baina nor dago egunero goian? Altuna. Gaizki jokatu duenean ere txapelak irabazten zituen erremontista bakarra izan da Urriza. Banakakoan ez zegoen hain gaizki sasoz. Barrenetxea menderatu zuen! Aritzek eta biok gora egin dugu, jautzia eman dugu, eta hori ere esan behar da.

Aritz Juanenea izanen duzu zain finalean. Lagun ona duzu. Eraginik ba al du horrek?

Oso lagun ona da, final berezia. Pasa den larunbatean Endika menderatu zuenean nire eserlekitik jautzia eman eta asko poztu nintzen. Hori bai, igandean ja finalari begira jarri nintzen, eta lagunak albo batera utzi behar direla onartu nuen. Aste honetan ez dago lagunik. Partida eta gero laguntza behar badu, ahal dudana guztia lagunduko diot, baina partida jokatu arte bakoitzak

berea lehenetsi behar du. Nire helburua berari ahalik eta zailantza gehien sortzea da. Askok kostatzen da tamaina honetako aukera bat izatea, eta behin lortuta, arrakasta lortzeko zure esku dagoen guztia egin behar duzu. Ezin duzu zeure burua engainatu, eta finaleko aurkaria zure laguna ez dela onartu behar duzu, beste ezeren aurretik.

Zure kirol bizitzako aukerarik onena al da?

Lehen aukera erreala da, baina bizitza oso luzea da. Ez dakit aurkaria Juanenea delako egiten duzun galdera hori. Alegia, Barrenetxea eta Urriza ez daudelako den aukera hobe, baina ez ados nago erabat. Juaneneak aise menderatu zuen Barrenetxea finalerdian, sasoi puntu bikainean dago, eta pilotaria denak ondo ulertuko du jarraian egingo du-dan konparaketa. Aitor Elordik banakako txapela irabazi zuenean, txapelketa atariko kinieltan koadroan ere ez zegoen. Sartu zuten, sasoi puntu bikaina erakutsi eta txapela irabazi zuen. Ziur nago Altunari finala Elordiren, edo beste norbaiten aurka jokatu nahiago ote zuen galdetu izan baliote, Elordi ez den beste edonor aukeratuko zuela. Juaneneak bi txapeldun handiri irabazi die banakakoan, Barrenetxeari eta Urrizari, eta horrek urteko erremontista onena dela esan nahi du. Izenak ez du balio joko honetan, norberaren sasoi puntuak baizik. Juaneneari errespetua galtzea akats handia litzateke nire partetik, eta ez dut halakorik egingo, ez naiz ergela. Lau txapel jarraian irabazi ditu, eta erronka ikaragarria da niretzat. Era berean, motibazio handia dut, eta txapela janzteko prest ikusten dut nire burua. Ez, ordea, aurkaria Juanenea delako. Aurkariak Barrenetxea eta Urriza izanen balira ere antzera erantzungo nizuke. Juaneneari errespetu osoz, baina txapelaren bila ariko naiz bete-betean.

Sarri hortxe, mugan gelditu zara, eta onartu izan duzu publikoki horrek halako buruko minak eragin izan dizkizula. Nola bizi duzu egoera hori egun?

Galtzea posible dela oso kontzientea naiz. Juanenea erremontista aparta da, eta buruko ariketa egin dut etortzen dena natural onartzeko. Bestalde, Juaneneak finalean ni menderatzeko gauzak oso ondo egin beharko dituela ere badakit.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 8

URNIETA Ate irekiak

Funky eta yoga ikastaroetako atera irekiera jardunaldia.
18:30, *Sarobe*.

ANDOAIN Sorabilla

Meza Alberto Agirre abesbatzarekin eta hamaiketako.
11:30.

LARUNBATA 9

ANDOAIN "Sopla!", IkusZirkus

Bost diabolito dantzari, soka-baso bat, bizikleta-duelu bat, hankak eta eskuak dituen helikoptero bat...
Truca circus konpainiaren eskutik.
19:00 *Goikoplaza*.

IGANDEA 10

URNIETA Igerileku irekia

Denboraldia amaitzeaz da. Igandean itxiko dituzte igerileku ateak.
Azken eguna.

ASTELEHENA 11

ANDOAIN Bezeroaren astea

Salkineko merkatalguneetan bezeroaren astea ekingo diote.
Oraingoan, sari potoloa eta guzti.
Irailak 11-17. Merkatalguneak.

ANDOAIN Auzo bisitaldiak

Auzoz auzoko bisiten bigarren faseari ekin dio udal gobernua.
12:00, *Goikoplaza eta Dr. Huitzi*.



ANDOAIN Euskara Plazara musika saioa

Musika emanaldia haur eta familientzat, Ken Bat taldearen eskutik. Iaz, Zumea plazan egin zuten eta parte hartze handia izan duen. Andoaingo Udalak antolatutako emanaldia da.
Irailak 8, ostirala. 19:00-21:00, Goikoplaza.

ASTEAZKENA 13

ANDOAIN Auzo bisitaldiak
Auzoz auzoko bisiten bigarren faseari ekin dio udal gobernua.
12:00, *Sorabilla*.

OSTIRALA 15

ANDOAIN Outlet kalean
Eskaintza bereziak udalerriko merkatalguneetan. Arratsaldean Gora Kaletxiki kalez kale ibiliko da.
18:00-20:00, *Txaranga*.
Egun osoan. Merkatalguneak.

LARUNBATA 16

ANDOAIN Outlet kalean
Eskaintza bereziak udalerriko merkatalguneetan.
Egun osoan. Merkatalguneak.

ANDOAIN Ibilbide gidatua

Andoaingo Guduari buruzko ibilaldi gidatua antolatu du Larramendi Bazkunak. Ibilaldi gidatuan parte hartzeko aurretik izena eman besterik ez da egin behar: harrera@larramendibazkuna.eus / 656-782-521.
11:00, *Berrozpe*.

Sari berria jasoko du Tokikom tokiko hedabideen elkarteak

TOKIKOM elkarteak jasoko du EITB Saria FesTVal Gasteizko telebista jaialdian

Erredakzioa ANDOAIN

Euskarazko 76 toki komunikabide osatutako sarearen hamar urteko ibilbidea nabarmenduko du EITBk. Festval-ek zabaldutako oharrean dioenez, "hamarkada batean, TOKIKOMek agra-

rian utzi du zein garrantzitsuak diren tokiko komunikabideak gizartean, bertako informazioa galdu ez dadin. Gainera, elkarlan eredu berriak ezarri ditu, tartean EITBekin". Elkarlan horien artean daude: Primeran

ikus-entzunezko plataformarako egindako lana, datu kazetaritzan lehen pausoak eman dituen Saretzen proiektua, irratietara tokiko istorioak eramateko dugun irratikolaborazioa, etab.

Alaitz Artolazabal zuzendariak pozez hartu du saria: "Euskara hutsezko hedabideak aitortzea ez da egunero gertatzen. Komunitate sendoa osatzen dugu, baina are handiagoa izango bada elkarlan efektiboak beharko ditugu ezinbestean".

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO


Oppenheimer
Irailak 9, lar.
19:30.
Irailak 10,
igandea. 19:30.
Irailak 11, astl.
19:30.

Elemental

Irailak 9, 17:00.
Irailak 10, 17:00.

Campeonex

Irailak 16, lar.
19:30.
Irailak 17, ig.
17:00, 19:30.
Irailak 18, ast.
19:30.



SINOPSISIA



Oppenheimer

Zuzendaria: Christopher Nolan. **Aktoreak:** Cillian Murphy, Emily Blunt, Robert Downey jr., Matt Damon, Josh Hartnett... **Herrialdea:** AEB (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, historia. **Iraupena:** 180 min.

Energia nuklearraren erabileraz

Gerra garaian, Julius Robert Oppenheimer (Cillian Murphy) fisikari estatubatuarra "Manhattan Proiektua" ren buru da. Bere herrialdearentzat bonba atomikoa eraikitzeko saiakuntza nuklearrak gidatzen ditu. Bere botere suntsitzaileak jota, Oppenheimerrek zalantzan

jartzen ditu bere sorkuntzaren ondorio moralak. Harrezkero, eta bizitza osoan, arma nuklearrak erabiltzearen aurka agertu zen.

Udan egin zuten estreinaldia Barbie filmarekin batera, eta biak ala biak ikustera jendetza hurbildu da.

Izen-ematea Lekaioko eta Sarobeko ikastaroetan

Erredakzioa URNIETA

Saroben Funky eta yoga eskainiko dute, datorren ikasturteari begira. Ikastaro horietan, Urnietan erroldatutakoek lehen-tasuna izango dute. Ate irekiera saioa egin zuten, asteartean. Saroben ere eskaintzen da antzerki tailerra. Aski ezaguna da antzerkizaleentzat, baina proba egin nahi duenak ostiral hone-

tan aukera dauka. Ekitaldi irekia antolatu dute, Saroben bertan, 18:30ean hasita.

Lekaion joskintza, marrazketa eta pintura eta eskulanak eskainiko dute haurrentzat zein helduentzat. Helduentzat bada laugarren aukera: egur taila.

Ikasturtearen hasiera

Yoga eta funky urriaren 2an abiatuko dira. Antzerki tailerra, berriz, urriaren 20an. Lekaioko ikastaroak, aldiz, urriaren 18an.

Xoxokako pilota txapelketa bete-betean da

Partidak bereziak izaten dira, ez-ohiko frontoian jokatzeko baitira, eskuz, banaka. Auzotar zein pilotazale ugari elkartzeko txapelketak, izan ere, bestelako jokamoldeak eta esandako frontoien berezitasunak ikusmira handia sortzen du. Iragan abuztuaren 29an hasi zen txapelketa; datozen egunetan ere partidak ikusteko aukera egonen da.

Pilota eta pala txapelketak, UKEren eskutik

Urtero bezala, pilota (umeentzat) eta pala (helduak, 2009 aurrekoak) txapelketak antolatu ditu UKEk, Kontzejupean. Adinaren arabera rako mailatan lehiatuko dira. Parte hartu nahi duenak 12ra bitarte izango du aukera izena emateko, Lekaion edo 943 00 80 33 telefonora deituta. Txapelketa irailaren 14an hasiko da, arratsaldeko 17:30etik aurrera.

Gorengo mailako Euskalduna eta Urnieta taldeek

Irailaren 16-17 asteburuan abiatuko da futboleko gorengo maila. Lehen multzoan dago Urnieta, eta lehen jardunaldian Ostadarren aurka ariko da etxean. Euskaldunak ere etxean egingo du debuta, baina bigarren multzoan lehiatzen. Bergara taldearen aurka lehiatuko da. Aste hauetan prestaketa lanetan dira bi taldeak.

Bezeroaren Astea eta Outlet kalean, datozen egunotan

Erosketa sustatzeko ekimen bikoitza aurkeztu du Salkinek. Aurten, gainera, sari potoloa zozkatuko du

Erredakzioa ANDOAIN

Bezeroaren astea irailaren 11tik 17ra izango da, Andoainen. Horren baitan, erosketa-sorta egiten dutenen artean, 2.500 euroko balioa duen bidaiaren zozketa egingo dutela iragarri dute.



Barrasa eta Lasa zinegotziak, Apaolaza kultur teknikariarekin batera. AIURRI

Zirkoaren aldaera ezberdinak Andoainera iristear dira

IkusZirkus ekimenaren ziklo berria larunbat honetan abiatuko da, hurrengo irailaren 22ra bitarte

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Garai batean, Gabonetan izan zen zen, eta, azken urteotan, uda amaierarekin batera, antolatzen ari dira. Goikoplazara, Otieta eta Bastero Kulturgunera zirkoaren xarma iristear da, IkusZirkus zikloaren bitartez. Kultur jarduera hain ez ohikoaz gozatzeko aukera paregabea da. Bastero bi emanaldien prezioa 5 eurokoa izango da, eta beste hiru emanaldiena doakoa. Marta Lasa kultur zinegotziak zirkoaren ikusgarritasunaz gozatzeko deia luzatu zuen: "IkusZirkus zikloan ikusgai izango diren emanaldietara hurbiltzera gonbidatu nahi ditugu herri-tarrak". Lehen emanaldiak:

Irailak 9, larunbata

19:00, Goikoplaza. Dohainik. "Sopla!", Truca circus konpainiaren eskutik. Aurkezpena: Bost diabolodantzari, soka-baso

bat, bizikleta-duelu bat, hankak eta eskuak dituen helikoptero bat, erritmo handiko pilotak...

Irailak 15, ostirala

20:00, Bastero. 5 euro.

"Greed!", Kine circus Etiopiaren eskutik. Aurkezpena: "IkusZirkus freskoa, arin eta harrigarria".

Irailak 16, larunbata

18:00, Otieta. 5 euro.

"Harreman", Zirkozaurre konpainiaren eskutik. Aurkezpena: "Zirkua eta euskal musika tradizionala elkartzeko ditugu. Bi mundu ezberdin baina gauza asko partekatzen dituztenak".

Irailak 17, igandea

19:00, Goikoplaza. Dohainik.

"El apartamento", Circ About It konpainiaren eskutik. Aurkezpena: "Zerbait gertatu da, baina ez dakigu zer. Latetan zerbait bilatzen dute".

luzatuko da parte hartzeko aukera. Zozketa urriaren 16an izango da, Salkinen egoitzan.

Saria bi lagunentzako 2.500 euroko bidaia da, eta apirilaren 30a baino lehen trukatu behar da. Salkinek iragarri duenez, "saria ezin izango da inola ere aldatu, konpentsatu edo beste norbati utzi. Galarazita dago saria haren diru-balioaz aldatzea".

Bitartean, irailaren 15ean eta 16an Outlet kalean ekimenaren edizio berria ospatuko da.



Mikel Ormazabal Etxeberria. ELIZBARRUTIA

Mikel Ormazabal, Urnieta apaiz berria

Astigarraga, Urnieta eta Ereñotzuko elizbarrutien ardura hartuko du, irailaren 1ean hasita

Erredakzioa URNIETA

28 urteko gaztea da Urnieta apaiz berria. Antigua auzoan jaioa, 2020tik apaiza da. Donostian fededun familiarian jaio eta hezitakoa da. Jaungoikoa bizitzaren erdigunean jartzearren arrazoiak azaldu zuen "Camino católico" aldizkarian: "Gazteoi gezur handi bat sartu digute: geure burua ardatz hartuta bizi behar dugula sinetsaraztea, zoriontsu egiten gaituena bilatuz. Errealitatea da norberarengan zentratuta bizitzea zoriontsu izateko eragozpena dela. Uste osoa dut denok bilatzen dugun zorion hori ezinezkoa dela Jainkorik gabe aurkitzea".

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN Zorionak Nerea
Nereak 11 urte beteko ditu irailan. Primeran ospatuko dugu. Asko maite zaitugu!



URNIETA Zorionak Lizar
Lizar! Zorionak! 7. urtea bete duzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.



ANDOAIN Amalur Jauregi Hidalgo
Zorionak Amalur! Jarraitu orain arte bezain alai! Ongi pasa! Asko maite zaitugu!



URNIETA Zorionak, Olaia!
Elkarren konplize izaten jarrai dezagun bizitzeko ditugun abenturetan! Asko maite zaitugu, ta, egunetik egunera, hobeto! Korrokaluak

ODOL-EMAILEAK

HURRENGO HITZORDUAK

Irailak 11, astelehena.

16:30-20:30. ANDOAIN, Anbulatorioa Rikardo Arregi kalea, z/g Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

Irailak 20, astearte.

16:30-20:30. URNIETA, Gazteleku Plazido Mujika Enparantza.

MERKATU TXIKIA

ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoaingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.

PARTE HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus

619 163 537 - 943 300 732



Urnieta
udala



Altunako sagardoa, Gurutzetako tomatea, Montefrioko gazta, eta Adarrazpiko gazta... janari dastaketa bikaina, bertatik bertara ekoiztutakoa. AIURRI



Anne Fernandez irabazlea. AIURRI

Anne Fernandez Sanmioletako kartelaren egilea

Anne Fernandez urnietarrak sortutako irudiak iragarriko ditu aurtengo Sanmiel jaiak, jai-batzordeak hala erabakita. Fernandezek adierazi du pozarren dagoela: "Herriko festetan, zure kartela ikustea oso polita da". Kartel lehiaketa irabazten duen bigarren aldia da. 2018an eskuz gauzatu zuen irudia eta, aurtten, berriz, digitalki.

Iraila, ospakizunen hilabetea Urnietan

Sanmielak ospatuko dituzte Urnietan, hilaren 27tik urriaren 1era. Bien bitartean, astebururo-astebururo, askotariko hitzorduak izango dira herrian. Aurreko ostiralean, esaterako, bertako produktuen dastaketa antolatu zuen Poxta Zaharrek

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Iraila hastearekin batera, atzera-kontaktetan murgildu dira urnietarrak. Izan ere, San Miel jaiak izango dira hilaren azken asteburuaren bueltan. Dena dela, festa-giroa prestatzen hasia da, jada, Poxta Zahar elkarteak, astebururo hitzordu bereziren bat antolatu baitu. Besteak beste, Urnietako produktuen dastake-

ta izan zen joan den ostiralean. San Juan plazan egin zuten bilkura iluntzeko 19:00etan. Herriko ekoizleen uztaz gozatzeko aukera eduki zuten bertaratu-takoek: Altunako sagardoa, Gurutzetako tomatea, Montefrioko gazta, eta Adarrazpiko gazta. Udako oporrak amaituta, herri-berriro ere itzultzeko aitzakia polita ipini zuen elkarteak. Hala,

eguraldia lagun, arrakastatsua izan zen proposamena, jende mordoak bildu baitzen plazan.

Mus-txapelketa, datorren larunbatean


Datorren asteburuan, irailaren 9an, larunbatarekin, hain zuzen ere, mus-txapelketa izango da, San Juan plazan, arratsaldeko 17:00etan. Bikoteko 10 euro or-

daindu beharko dira, egunean bertan. Izena emateko bi aukera dituzte parte-hartzaileek: Matxo tabernan edo Instagram bidez. Ez da, ordea, elkarteak antolatutako lehiaketa bakarria izango. Kirolzaleei begira, Kontzejupean ere zer gozatua egongo da: banakako pilota txapelketa antolatu dute, irailaren 16an. Azkenik, jaien bezperako asteburuan, hilaren 23an, bertso-saioa izango da iluntzeko 19:00etan San Juan plazan. Informazio gehiagorako, jo Poxta Zahar elkartearen Instagram eta Facebook kontuetara.

LARUNBATEAN, MUS-TXAPELKETA SAN JUAN PLAZAN, POXTA ZAHARREK ANTOLATUTA

Jai parekideen formakuntza eskainiko du Udalak

Urnietako Udalak "berdintasunezko jai herrikoi eta parekideak sustatu" nahi ditu. Hala, jai parekideen gaineko formakuntza eskainiko du bi egunetan. Hizkuntzaren araberako bi hitzordu izango dira, biak arratsaldean (17:30-20:30), Lekaion: irailaren 13an, gaztelaniaz eta 14an, euskaraz. Izena emateko: Bertan, Gazte Informazio Puntua edo Urnieta.eus webgunea.



HERNANIKO KIROLDEGIAN
IRAILAK 17, 17:30tan

ENE KANTAK
DANTZAN

Sarrerak: 10,00€
(= eragiketa guztiak)

30 DOBERA
EUSKARA ELKARTEA